

HEZKUNTZAREN SOZIOLOGIA

marina.sagastizabal@ehu.eus

Lehen Hezkuntzako Gradua 1. maila

EDUKIAK

3. GAIA: HEZKUNTZA SISTEMA ETA GIZARTE EGITURA

- Hezkuntza eta kultura aniztasuna.



3. GAIA. Hezkuntza sistema eta gizarte egitura

Hezkuntza eta Kultura aniztasuna

Kultura: Zer da?

Kultura kotzeptuak jendarte batek sortzen duen guztia biltzen du, gauza materialetatik hasi (etxeak, arropak, jakiak,..) eta materialak ez diren elementuetara (balioak, sinboloak, arauak, sentitzeko/pentsatzeko/jokatzeko moduak, mundua eta bizitza ikusteko modua...) (Imaz, 2012: 102).


- **XXI. Mende hasieran kultura gai garrantzitsua bilakatu da:** nazioarteko migrazio-mugimenduen ondorioz, kultura bat baino gehiago aurkitu baitaiteke gure herrietan. Euskal Herrian, kultura txikien biziraupenari buruzko eztabaidak piztu ditu, hezkuntzan eragin handia dutenak.

Kultura Aniztasuna: kontzeptu nagusiak



- **Arraza:** Herentziaz jasotako ezaugarri fisiko jakin batzuk (azalaren kolorea, aurpegi eta gorputz mota, ilea,..) partekatzen dituzten pertsona talde bat.
- **Etnia:** Kultura bat partekatzen duen pertsona-talde bat, nortasun sozial propio eta berezi bat duena.
- **Arraza gutxiengoak edo gutxiengo etnikoak:** arraza edo etnia bat partekatzen duten pertsona-taldeak dira, jendartearen egoera gutxitu batean daudenak.
 - **Gehienetan, baztertu eta zokoratu egiten dituzte** arraza edo etnia jakin batekoak izateagatik eta gutxiengoa izateagatik.
 - **Egitura sozialeko beheko postuak betetzen dituzte:** prestigio sozial baxuko lanak egiten dituzte, soldata baxuagoak eta bizitza-aukera murriztagoak dituzte (eskolatze-maila baxuagoa izaten dute).
 - **Kontrako kasuak ere eman dira:** Hego Afrikako apartheid kasu.

Kultura Aniztasuna: kontzeptu nagusiak



Arrazaren araberako desparekotasunak **aurreiritzietan** eta **estereotipoetan** oinarritzen dira

- **Aurreiritziak**: orokortasun zurrun eta irrazionalak. Arrazaren eta etniaren kasuan, badugu joera inor aurrez aurre ezagutu baino lehenago ere aurreiritzi bat izateko, talde jakin bat aurretik epaitzeko, gure kulturak eman digun patroia arabera.
- Aurreiritzietatik **estereotipoak** sortzen dira: aurreiritziz betetako irudi distortsionatuak dira. Mundua eta beste arraza eta etniak ulertzeko estereotipoak erabiltzen ditugu. Irudi edo ideia horien atzean emozioak daude, horregatik, oso zailak dira aldatzen:

<https://www.youtube.com/watch?v=Qtt7Vm9WQQ0>

Kultura Aniztasuna: kontzeptu nagusiak



- **Arrazismoa:** aurreiritzi eta estereotipoetan oinarritzen da eta arraza batzuk besteak baino hobekak direla uste duen ideologia da:
<https://www.youtube.com/watch?v=zM82YJas2u0>
- **Diskriminazioa:** Norbait kategoriatu sozial batekoa izateagatik modu ezberdin batean tratatzea (arrazak, etnia, genero, klase soziala,...). Aurreiritziak sinismenen arloan kokatzen diren bitartean, diskriminazioa ekintzen eta jarreraren arloan islatzen da.

Kultura aniztasuna: harreman motak

Genozidioa: pertsona-talde bat sistematikoki suntsitzea. Garbiketa etniko kontzeptua ere erabiltzen da.

Segregazioa: hainbat arraza edo talde etniko fisikoki eta sozialki elkarrengandik bereizita edo banatuta bizitzea.

Asimilazioa eta akulturazioa: talde etniko batek beste talde baten kultura (hizkuntza, erlijioa, ohiturak,..) hartzea. Gehienetan indarraren eta boterearen bitartez.

Pluraltasuna, kultura-aniztasuna, kulturartekotasuna: jendarte batean arraza eta talde etniko batek baino gehiagok elkarrekin bizitzen asmatzea, bakoitzak bere nortasuna mantenduz eta baliabide sozialak modu bidezko batean partekatuz.

Kultura aniztasunaren kudeaketa eskolan



- Tradizionalki, eskola asimilazio edo akulturazio tresna izan da: estatuek erabilitako tresna kultura-uniformizazioa bultzatzeko.
- Hiru eskola-eredu bereiztu daitezke:
 1. **Aukera-berdintasunaren izenean**, kulturak eskola bakar eta uniforme batean integratu behar direla defendatzen duena, denei oinarizko kultura komun bat eskaintzeko. Bigarren mailako helburua da aniztasun kulturala zaintzea, aukera-berdintasuna ziurtatzeak hartzen baitu lehentasuna. Jatorrizko kultura-nortasuna ez da eskolan landu beharreko zerbait. Eskola bakoitzean ikasle atzerritarren gehienezko kuota bat ezartzen da. Jendartean bizitzeko beharrezkoa den kultura erakustea da eskolaren lehentasuna. **Adibidez:** Frantzia.

Kultura aniztasunaren kudeaketa eskolan



- 2. Ondare kulturala mantentzea helburu,** eskolak nortasun kulturalak adierazteko eta garatzeko aukera eman behar duela defendatuko du. Denok izan beharko genuke aukera gure kulturaren arabera bizitzeko. Beharrezkoa da pertsonak gizarteratu diren marko kulturalaren babesa eta errekonozimendua. Ez da kuotarik ezarriko, zenbaitetan, ghettoak sortzeko arriskua dago.
Adibidez: Alemania.
- 3. Aukera berdintasuna eta kultur artekotasuna errespetatzea helburu,** kulturak garbi eta ukitu gabe mantendu behar diren ondareak ez direla defendatuko du. Bata bestearen ondoan bizitzearen ondorioz aldatu, nahasi eta aberastu egiten diren sistema konplexu biziak baitira. Kulturen arteko enpatia eta truke positiboa bilatzen da.

Kultura aniztasunaren kudeaketa eskolan



- **Kultura-aniztasunaren aurrean hiru “eredu pedagogiko” berezi dira:**
 1. **Ezberdintasun kulturala oztopoa da:** kulturalki ezberdina denak oztopo bereziak topatuko ditu eskolan. Horregatik, konpentsazio-lana egin behar da haiekin eta beste neurri batzuk erabili (diskriminazio positiboa). Adibidez: Kataluniako Eskola Egokitzapenerako Tailerrak. **Arriskua:** gutxiengo kultural horientzako neurriak baino ez dira.
 2. **Aniztasun kulturala ospatzekoa da:** festa edo aldarrikapen giroko jardunaldi bereziak antolatzen dira eskolan “aniztasunaren olinpiadak”, “Afrikaren, Asiaren eta Latinoamerikaren asteak”, .. Eskolak atea irekiko dizkie beste kultura batzuei, kultura nagusietakoak ez direnak protagonista bihurtu daitezke, familiaren eta eskolaren arteko harremanak sendotu daitezke. **Arriskua:** etorkinak estereotipatzea, kulturen bertsio tradizionala eta folklorikoa indartzea, aurkako efektua eragin dezakete.
 3. **Bi ikuspegi horien gabeziak gainditu nahi dituenak:** kultura-aniztasunerako hezkuntza-zentro guztietan, ikasle guztientzat, jakintza-arlo guztietan garatu beharreko praktika zeharkakoa da.

Kultura aniztasunaren kudeaketa eskolan



○ Kultura aniztasuna eskolan lantzeko printzipioak:

- **Kultura aniztasunaren aldeko jarrera positiboak lantzea** (errespetatu, aurreiritziak gainditu, eta balioa eman).
- **Autoestimua pertsonala eta kulturala hobetzea** (bakoitzaren nortasun kulturala zainduz, besteena onartuz, eta elementu kultural berriak eta ezberdinak bereganatzen ikasiz).
- **Kulturen arteko elkarbizitza erraztea** (antzekotasunak bilatuz eta gatazkak modu eraikitzaile batean konpontzen saiatuz).
- **Aukera-berdintasuna ematea ikasle guztiei** (eskola-curriculumean beharrezkoak diren egokitzapenak eginez, errendimendu onena lortzen saiatuz, eta itzaropen baikorrak izaten erakutsiz).

Kultura aniztasuna eskolan



- **Kontraesanak:** eskolari kultura-aniztasuna babestea eta sustatzea eskatzen zaio jendarteko gainerako instituzioetan joera eta politika baztertzailerak nagusi diren bitartean (atzeritarren legea, komunikabideen trataera,...)

“Bajo semejante modelo de convivencia (o mejor dicho, de conflicto) cultural, en la escuela recae la difícil papeleta de reconstruir lo que su entorno se empeña en destruir” (Merino, Sala eta Troiano, 2003: 380)

Kultura aniztasuna

Klaseko ariketa: bideoa ikusi eta testua irakurri. Talde bakoitzak hasunarketa egingo du, idatziz, hurrengo galderak haintzat hartuz:

Historia bakarraren arriskua

<https://www.youtube.com/watch?v=D9lhs241zeg>

- Zein da historia bakar bat kontatzeak dakarren arriskua?
- Zein da eskoletan kontatzen diguten historia?
- Testuak zer aipatzen du eskolaren paperari buruz?
- Garrantzitsua da zuentzat kultura aniztasuna lantzea garai honetan? Zergatik?
- Nola landu genezake kultura aniztasuna eskolan?

